

## «Kooperatiben Euskal Legea Nazioarteko Zuzenbide Kooperatiboaren Testuinguruan» Jardunaldiaren Kronika

*Chronicle of the Conference «basque cooperative law in the light  
of international cooperative law»*

Aingeru RUIZ MARTINEZ

GEZKI Institutua (UPV/EHU)

Urriaren 1ean, «Kooperatiben Euskal Legea Nazioarteko Zuzenbide Kooperatiboaren Testuinguruan» deitutako Jardunaldia izan genuen Joxe Maria Korta Auditoriumean, UPV/EHUko Donostiako Campusan. Jardunaldiak Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseiluaren (CSCE-EKGK) babesan izan zuten, eta Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuak (GEZKI) antolatu zuten. Jardunaldiak kontinente guztietako 13 hizlari bildu zituen eta 40 ikusle baino gehiagok jarraitu zuten bai presentzialki, bai birtualki. Parte-hartzaileen artean dibertsitate handia aurkitu ahal izan zen: kooperatiben arloko akademiko, profesional, jurista eta erakunde publikoetako ordezkariak besteak beste. Jardunaldia hiru atalen barruan kokatu zen: Jardunaldiaren aurkezpena, nazioarteko ikuspegiak zuzenbide konparatuaren bidez, eta Euskal Kooperatiba Lege berria.

\* **Harremanetan jartzeko/Corresponding author:** Aingeru Ruiz Martinez. GEZKI Institutua (UPV/EHU) – [aingeruruiz06@gmail.com](mailto:aingeruruiz06@gmail.com) – <https://orcid.org/0000-0003-0521-5038>

**Nola aipatu/How to cite:** Ruiz Martinez, Aingeru (2021). «Kooperatiben Euskal Legea Nazioarteko Zuzenbide Kooperatiboaren Testuinguruan» Jardunaldiaren Kronika», *GIZAEOA - Revista Vasca de Economía Social*, 18, 323-332. (<https://doi.org/10.1387/gizaekoa.23152>).

Jasoa: 2021/10/28; onartua: 2021/10/28.

ISSN 1698-7446 - eISSN 2444-3107 / © 2021 UPV/EHU



Obra hau *Creative Commons Atribución 4.0 Internacional*-en lizentziapean dago

## 1. Aurkezpena

Jardunaldiaren aurkezpena 9:30etan izan zen, CSCE-EKGGK eta GEZKI-ko presidente eta zuzendariaren eskutik. Erakunde eta pertsona hauen lana zuzenean kooperatibismoaren sustapena eta hobekuntzarekin lotuta dago, kooperatibismoa balio sozial eta demokratiko gisa ezartzearekin eta bultzatzearekin batera. Patxi Olabarriak (CSCE-EKGGK-ko presidentea), Jardunaldia zabaldu zuen bere hitzaldiarekin.

Presidenteak nabarmendu zuen Jardunaldia CSCE-EKGGK-aren 40. urteurrenaren ospakizunen parte dela eta orain arte egindako jakintza kooperatiboaren hedapenarekin jarraitzeko asmoa islatzen duela. Horren harira, kooperatiba lege berriaren analisiaren garrantzia aipatu zuen, helburu horretarako zeuden nazioarteko adituen parte hartzea goraiapatuz. Kooperatibei buruz, haien erresistentzia gaitasuna berriz ere frogatu zutela pandemian zehar azpimarratu zuen. Azkenik CSCE-EKGGK-aren hurrengo bi ezaugarriak nabarmendu zituen:

- Kooperatiben soberakinen likidazio fondoen eskuratzea, eta hauen geroko erabilera sustapen kooperatiborako.
- Erakundeak kooperatibei eskaintzen dien arbitraje, bitartekaritza eta adiskidetzatza zerbitzua.

Olabarriaren ostean Aitor Bengoetxearen (GEZKI-ko zuzendaria) unea heldu zen. Honek azpimarratu zuen kooperatibismoaren izaera internazionala eta malgua. Jardunaldiaren helmuga, euskal kooperatiba legea nazioarteko esparru juridikoan kokatzea zela nabarmendu zuen eta horrela, besteez ikastea. Kooperatibismoa mugimendu bat dela eta honelako Jardunaldiek mugimendu hau sustatu eta aurrera ibiltzen laguntzen dutela esan zuen. Azkenik, ikus-entzule guztiei ongi etorria eman zien, honekin hurrengo atalari bide emanez.

## 2. Nazioarteko Ikuspegia: joerak Zuzenbide Konparatuan

9.45etan, zuzenbide konparatuaren auzian sartu ginen. Atal honetan nazioarteko zuzenbide kooperatiboaren egoera adierazi zen, horretarako, kontinente bakoitzeko aditu banak parte hartu zuen. Atenaseko Hellenic Open Universityko Ifigeneia Douvitsa izan zen atal honen moderatzailea eta sarrera moduan Finlandiako Unibertsitateko Henry Hagenek ikuspegi globala ekarri zuen aretora.

Henry Nazioarteko atala zabaldu zuen zuzenbide kooperatiboaren nazioarteko dimentsioa eta baldintzapena azpimarratzen. Horrekin batera, garapen jasangarria lortzea zuzenbide kooperatiboa gabe ezinezkoa zela

esan zuen. Bere interbentzioak auzi ezberdinetan erreparatu zuen, lehenengo ekintzailletza kooperatiboa izan zen. Honi buruz, besteak beste, globalizazioak asko baldintzatzen zuela adierazi zuen. Bigarren auzian, zuzenbide kooperatiboa eta garapen jasangarriaren arteko erlazioa aztertu egin zuen. Azken hori, nazioarteko zuzenbide publikoaren kontzeptu bat zela esan zuen, eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa eta Nazio Batuen Erakundeak adierazi zutela garapen mota hau lortzeko kooperatibak oso garrantzitsuak zirela nabarmendu zuen. Izan ere, garapen jasangarriaren zentroa justizia soziala dela esan zuen, eta justizia soziala lortzeko aberastasunaren produkzioa eta banaketa demokratikoak izan behar direla adierazi zuen. Kontuan hartzen kooperatibak direla espreski demokratikoak diren enpresa mota bakarrak, zentralak dira garapen jasangarriaren xedea lortzeko. Honen harira, legegileak honelako gauzak arautzean aurkitzen dituen erronkei buruz hitz egin zuen, hirugarren auzian sartzen. Bi erronka nagusi daude: nola egokitu parte hartzea kooperatibismoaren garapenari eta nola itzuli printzipio kooperatiboak zuzenbide kooperatibora. Lehenengoari buruz hurrengo argitu zuen, alde batetik parte hartzea antolakundearen auzi guztietara heldu behar da eta teknologia berriak aprobeztatu behar dira parte hartzea hobetzeko. Bestalde, interes taldeen arautze apropos bat behar dela azpimarratu zuen. Honekin amaitu zuen Hagenek bere interbentzioa.

Honen ostean, Aitor Bengoetxearen txanda heldu zen. Honek Europako egoera azaldu zuen.

Hitzaldi gutzia Europako zuzenbide kooperatiboaren batasuna eta harmonizazioaren lerroan planteatu zuen. Lehenik eta behin Erresuma Batuan eta Prusian aurkitu daitezkeela Europako legedi kooperatiboaren aitzindariak aipatu zuen. Zuzenbide kooperatiboaren inguruan dagoen heterogeneitate handia azpimarratuta, batasuna lortzeko ekin diren bi proposamen aurkeztu zituen: Sozietate Kooperatibo Europarra eta PECOL (Principles of European Cooperative Law). Lehenengoari buruz nabarmendu zuen harmonizatorik ez duela sustatzen, baizik eta kooperatiben hedapena Europar Batasuneko estatu bat baino gehiagotan. PECOLi buruz, proiektu akademiko bat dela esan zuen Bengoetxeak. Haren helburua harmonizazioa ez bada ere, kooperatiben izaeraren arloko oinarrizko printzipio batzuk ezartzea du helmuga. Hau azalduta, berriro bota egin zuen lehenago planteatutako galdera: «ba al dago batasuna europar zuzenbide kooperatiboan?» Haren erantzuna ezetza izan zen, hurrengo metaforarekin justifikatzen: zuzenbidea jantzizat hartuta logikoa da, mugimendu eta errealitate kooperatiboa anitza izanik, soineko ugari behar izatea. Hala ere, nabarmendu zuen PECOLen inizatibaren garrantzia kooperatiben funtza definitzen saiatzen den heinean.

Hurrengo hizlaria Lovainako Unibertsitate Katolikoko Willy Tadjudje izan zen. Honek Afrikako ikuspuntua partekatu zuen.

Lehenik eta behin, Afrikako azalpen geopolitikoa eman zuen, izan ere, honen inguruko azalpenak interbentzio osoan zehar aipatu zituen. Kooperatiba modernoak, kolonialismoarekin agertu zirela Afrikan esan zuen, moderno hitza azpimarratzen, izatez, Afrikan mutualitate tradizionalekin batera existitu baitira kooperatiba modernoak. Afrikar kooperatibismo modernoa hiru ataletan sailkatu ahal dela esan zuen Tadjudjek: lehenengo belaunaldia, bigarrena eta hirugarrena. Lehenengoa garai kolonialeko kooperatibismo da, honen ezaugarri nagusia estatu eta dinamika kolonialen menpe zeuden erremintak zirela da. Bigarrenari buruz, independentzia garaikoa bada ere, dinamika kolonialista eta batez ere, estatuaren menpekotasunean jarraitzen zutela aipatu zuen. Azkenik Hirugarren belaunaldiko kooperatibak, aldaketa erradikal bat suposatu zutela nabarmendu zuen, funtsean, estatuarekiko autonomia lortu baitzuten. Oraingo kooperatiba lege guztiak sailkatu ahal dira bigarren eta hirugarren belaunaldietan artean, nagusiki azken honetan. Hala ere, hirugarren belaunaldiko zuzenbide kooperatiboa duten herrialde askotan, estatuak jarraitzen du hauek kontrolpean izaten. Kooperatibismoa Afrikan nekazaritza eta finantzetan nagusiki aritzen dela esan zuen Tadjudjek. Hauek jasaten duten diskriminazio juridikoak eragiten du askotan kooperatibak forma juridiko komertzialekara transformatzea denborarekin, azpimarratu zuen. Afrikar zuzenbide kooperatiboa irekitzearen beharra ere nabarmendu zuen, hau da, beste kooperatiba motetara zabaltzea. Bere ikuspuntutik Afrikako zuzenbide kooperatiboak nolabaiteko isolamendua pairatzen du nazioarteko zuzenbide kooperatiboarekin konparatuta. Azkenik aurrera egiteko hurrengo bost perspektiba planteatu zituen: 1. Elkar lankidetzeta, esperientziak partekatzeko; 2. Heziketa aukerak garatzea; 3. Kooperatiben balioa azpimarratzea; 4. Digitalizazioa sustatzea eta 5. Mugimendu Kooperatiboa sustatzea.

Bost perspektiba hauekin amaitu zuen bere interbentzioa Tadjudjek eta Ifigeneia Douvitsak bide eman zion Asiako ordezkariari: Akira Kurimoto, Japoniako Aliantza Kooperatiboko kidea.

Honen interbentzioa kontinentearen ezaugarri geopolitikoaren azalpenarekin ere hasi zen. Asiak, munduko populazioaren % 60 jasotzen duela nabarmendu zuen. Kontinentearen dibertsitate politiko eta ekonomikoak azpimarratu zituen Akirak. Dibertsitate juridikoen harira, kolonizazioaren ondorioak azaldu zituen: Britaniarrek kolonizatu zituzten herrialdeek *Common Law* deritzon zuzenbide sistemak garatu dituzte, beste aldetik, Europa kontinentaleko herrialdeek kolonizatutako Asiako herrialdeak, zuzenbide sistema kontinentalak garatu dituzte. Sistema bi horien ezberdintasunak zuzenbide kooperatiboetan islatzen direla esan zuen: tradizio Britaniarreko sistemak perspektiba individualistagoak sustatzen ditu kooperatibekiko, aldiz, tradizio kontinentalak, kooperatibismoaren izaera komunitarioa hobeto egokitzen duela azpimarratu zuen. Akirak tradi-

zio sozialistako herrialdeen kasua ere aipatu zuen, herrialde horiek merkatu-ekonomiaren bidean badaude ere, estatuak oraindik kontrol handia duela kooperatibengan esan zuen. Horren ostean, Japonia eta Indiaren kasuak aipatu zituen. Akiraren arabera, horiek izan ziren Asiako zuzenbide kooperatiboko aitzindariak. Horren ostean, Asiar zuzenbide kooperatiboaren zenbait auzi aurkeztu zituen, horietako bat, herrialde askotan estatu mailako kooperatiba legeen sorkuntza zela aipatu zuen. Arlo berberetan, herrialde batzuetan egin diren zerga erreformek, kooperatiben zerga abantaila higatu dutela esan zuen. Hego Korea eta Japoniako lan-kooperatiben lege berriak ere nabarmendu zituen Akirak. Horrekin batera, Indian onartu berri den kooperatibetan genero berdintasuna sustatzeko legea ere txalotzekoa zela esan zuen. Amaitzeko, gomendio batzuk aurkeztu zituen: 1. Kooperatiben artean digitalizazioa sustatuko duten legeak sortzea; 2. Kooperatiben autonomia garatzea eta 3. Lege kooperatiboek finantzatzeko malgutasun nahikoa eskaini behar dutela.

Horren ostean, Ifigeneiak hurrengo hizlaria aurkeztu zuen, Ann Apps, Newcastleko Unibertsitatetik, Australia. Horrek Ozeaniako egoera azaldu zuen.

Apps-en aurkezpena Ozeaniako herrialdeen zuzenbidearen tradizio britaniarra nabarmentzen hasi zen. Hala eta guztiz ere, herrialde hauen sistema juridikoen barne pluraltasuna ere aipatu zuen. Ozeania, munduko kontinente txikiena eta biztanleria gutxienekoa dela esan zuen. Hortik aurrera, kontinenteko herrialde garrantzitsuen analisia egin zuen, Australiatik hasita. Herrialde hori, 6 estatu desberdinetan banatuta egon arren, lurralde antolamendu zentralizatuan oinarritzen dela esan zuen. Estatu bakoitzak bere kooperatiba legea dauka, baina guztien arteko koherentzia nabarmena dela aipatu zuen Apps-ek. Kontsumo eta nekazaritza kooperatiben atzerakada azpimarratzekoa zela esan zuen eta, aldi berean, kooperatiba mota berrien gorakada aipatu zuen. Zeelanda Berriaren kasua eta Australiarena oso desberdinak dira, lehenengoak nekazaritza kooperatiboko sektore indartsua baitu. Horiek mutualitateekin batera, BPGaren % 18 suposatzen dutela esan zuen. Horren ostean, Vanuatuko kooperatiba lege berria edo Kiribatiko kooperatiba legearen berrikuspenera ere aipatu zituen. Azkenik Fijiren kasuaz hitz egin zuen, nabarmentzen horien mugimendu kooperatiboaren trantsizioa nekazaritza kooperatiben nagusitasunetik, kontsumo kooperatiben hedapenera. Apps-ek azpimarratu zuen Britainiar influentzia dela eta, herrialde guztiek dutela kooperatiba lege orokor bat eta aldi beran, lege berriak finantza kooperatibentzako. Vanuatu eta Australiako lege kooperatiben erreformak aipatu zituen eta, bestalde, beharrezko erreformatzat jo zuen teknologia berrien erregulazioa, horiek kooperatibak partehartzaileagoak bihurtzeko duten potentzialagatik. Azkenik, hurrengo gomendioak eman zituen: auditoretza sozialaren beharra, Pazifikoko uharteetako lege

eredua garatzea eta kooperatiben gaitasuna garapen jasangarria lortzeko legean islatzea.

Ifigeneiak eskerrak eman zizkion Apps-i eta Buenos Aireseko Unibertsitateko Dante Cracognari eman zion bidea. Honek Amerikako perspektiba aurkeztu zuen.

Amerikako dibertsitate juridikoa azaltzen hasi zen: AEB, Louisiana salbuespen; Kanada, Quebec salbuespen eta Karibeko herrialde batzuk *Common Law* sisteman oinarritzen dira. Aldi berean, Latino Amerikako herrialdeak tradizio erromanistan. Bi bloke hauek hurrengo auzian ere ezberdinak dira: AEB eta Kanadak lurralde antolakuntza federala dute, lege estataletan oinarritua. Beste blokean aldiz, estatu federalak egon arren, erregimen unitarioetan oinarritzen dira. Cracognak esan zuen bi blokeen ezberdintasuna zuzenbide kooperatiboan islatzen zela, *Common Law*-eko blokeko herrialdeak ez dituzte lege kooperatiboak garatu, bitartean, Latinoamerikako herrialde gehienak honi buruzko lege ugari dituzte. Cracognak errepasatu zuen Latinoamerikako herrialdeen lege kooperatiboen garapena, hasiera batean kodeetako artikulua ziren soilik eta denborarekin gaurko lege autonomo eta orokorrak bihurtu direla esan zuen. Oro har lege hauek printzipio kooperatiboak kontenplatu dituztela bai espreski eta bai inplizituki azpimarratu zuen. Kooperatiba bat ezartzeko baldintzez ere hitz egin zuen. Kolonbian izan ezik, bestelako Latinoamerikako herrialde guztietan gutxienez 10 pertsona behar direla azaldu zuen. Gobernantzari buruz, egitura hirukoitza batean oinarritzen dela aipatu zuen, gobernuaren papera asanblada orokorrak egiten du, administrazioa kontseilu batek eta gainbegiratzea komisio jakin batek; organo guzti horietan bazkideak soilik jardun ahal dutela azpimarratu zuen. Kooperatiben ezaugarriekin jarraitu zuen, egintza kooperatiboa zer den azaldu eta araubide ekonomikoa aipatu zuen. Honen ostean, kontinentean ematen ari diren zenbait aldaketei buruz ere hitz egin zuen, besteak beste, Latino Amerikako kooperatiba lege-esparruaren proiektua eta berriki ematen ari diren kooperatiba kongresu erregionalak aipatu zituen. Azkenik Cracognak kooperatiben arazoak errepasatu zituen eta hauei arreta jartzeko gomendatu zuen, aipagarrienak berdintasun sozietarioa eta legegilearen ezjakintasuna kooperatiben izaerarekiko izan ziren. Honekin lehenengo atala itxi zen eta eguerdiko atsedena heldu zen.

### 3. Euskal Lege Kooperatibo berria

Bazkaria ostean, bigarren blokea zabaldu zen, Euskal Lege Kooperatiboaren analisiarena. Honetan Aitor Bengoetxea izan zen moderatzaile, honek bloke berria eta hizlari guztiak aurkeztu zituen eta amaitu bezain laster

bide eman zion lehenengoari: Itziar Villafañez, GEZKI Institutuko iker-tzaile eta irakaslea.

Itziarrek legearen analisi akademiko bat egin zuen. Hasiera moduan legearen izaera kontinuitate eta honen berritasuna hobekuntza teknikoetan zegoela batik bat aipatu zuen. Hemendik aurrera berrikuntza hauek zerrendatu eta komentatu zituen. Lehenengoa, kooperatiben definizioak, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren definizioa espreski egiten diola erreferentzia adierazi zuen. Hurrengo berritasunak, erregimen organikoarekin zuen zerikusia, konpetentziak banatzerakoan, legeak batzar orokorra eta administrazio organoaren artean azken hau pribilegiatzen duela esan zuen. Bere uztez, hau oso kritikagarria da, demokrazia eta eragin-kortasunaren arteko dikotomian, demokrazia txarto ateratzen delako. Gainera, asanbladak estatutuen bitartez ezin izatea legeak ematen dizkion potestateak handitzea, kritikagarria ere iruditu zitzaion, alde batetik legeak ez duelako asmatzen euskal kooperatibismoaren dibertsitateari erantzuten, eta bestetik, kooperatiben auto gobernantza ahuldu egiten duelako. Beste alde batetik, genero ikuspegia txertatu dutela legean esan zuen, emakumezko eta gizonezkoen ordezkapen orekatua egon behar dela esaten du legeak. Itziarrek legea hankamotz geratzen dela adierazi zuen, baina hala ere, berdintasunean aurrerapausoak ematea txalogarria dela esan zuen. Organoen osaerari dagokionez, kanpoko kideak administrazio organoetan parte-hartzeko aukera handitzea aipatu zuen. Legeak teknologia berriak bultzatzen dituela esan zuen ere, hala ere, pandemiarekin errealitateak zeharo gaititu duela legea nabarmendu zuen. Birtualtasunak, parte hartzea handitzeko potentzialitate handia duela azpimarratu zuen. Diligentzia eta leialtasun betebeharrak garatu direla legean aipatu zuen, bere iritziz, hori legearen puntu on bat dela esanez. Azkenik galeren inputazioa aipatu zuen, legearen puntu garrantzitsuetako bat zela azpimarratuz. Horri buruz, legeak argi eta garbi uzten zuela bazkideen erantzukizuna mugatua zela adierazi zuen. Honekin amaitu zuen Itziarrek bere interbentzioa.

Tajudjek galdera bat botu zuen: posible izango litzateke emakumeak bakarrik kide dituen kooperatiba bat sortzea? Horri Itziarrek baiezkoarekin erantzun zuen, izan ere, badagoela kasuren bat esan zuen. Aitor Bengoetxeak, eskerrak eman eta hurrengo hizlaria aurkeztu zuen: Elena Perez, Lanaren eta Enpleguaren arloko Sailburuordea.

Perezek Euskal Kooperatibismoaren ezaugarriak aipatu zituen: dibertsitatea, izaera nagusiki industrial, akademia eta erakunde publikoen inplikazio handia, etab. Aurkezpen horren ondoren, gobernuaren egitasmoak kooperatiben arloan azaldu zituen, haien artean Gizarte Ekonomiaren lehenengo plan estrategikoa bultzatzea. Horrekin batera Gizarte Ekonomiaren pisua EAEko ekonomian azaldu zuen, kooperatiben ga-

rrantzia azpimarratzen. Kooperatiba handien garrantzia ere nabarmendu zuen, adierazten hauek izan zirela joan den urtean lanpostu gehien sortu zituztenak euskal ekonomian. Hemendik aurrera, 2019ko kooperatiba legeari buruz hitz egiten hasi zen. Gernikako Estatututik hirugarren kooperatiba legea eta kontsentsuaren bitartez onarturikoa izan zela nabarmendu zuen. Legeak izaera kontinuista duela aipatu zuen. Honen helburuen artean, besteak beste, kooperatiba mota batzuen izaera argitzea, sozietateen zuzenbideko zenbait kontzeptu txertatzea eta administrazio publikoaren papera zehaztea aipatu zituen. Azken hori sakonago azaldu zuen, sustapena, kontrola eta erregistroa zirela horren betebeharrak kooperatibekiko zehazten. Interbentzioaren azken atala euskal zuzenbide kooperatiboaren etorkizunari buruzkoa izan zen. Alde batetik, 2019ko legearen aldaketa aipatu zuen. Horren xedea oker tekniko batzuen konponketa, organoen bilera telematikoen arautzea eta estatutuak lege berrira egokitzeko epea luzatzea da. Honetaz aparte, hiru dekretu ezberdin ateratzea espero dute: bata kooperatiben erregistroari buruzkoa, sinplifikazioa xede; beste bat zehapan araubideari buruzkoa, eta azkena Kooperatiba Legea garatzeko erregelamendu orokorra.

Elena Perezen interbentzioren amaieran, Bengoetxeak hitza eman zion entzuleen artean zegoen Enekoitz Etxezarretari. Honek zerbitzu publikoak eskainiko dituzten kooperatiba mota berriei buruz informazio gehiago eskatu zuen. Perezen erantzuna, hori berde xamar zegoela eta informazio gehiago ezin zuela aurreratu izan zen. Aitor Bengoetxeak ildo berberean hurrengo hausnarketa egin zuen: beharrezkoa izango da ondo garatzea gai hau bermatzeko kooperatiba mota hauek ez bihurtzea zerbitzu publikoetako pribatizatzaileak, formula komunitarioen eta publikoen sinergiak garatzeko baizik. Elena Perezek, adostasuna adierazi zuen Bengoetxearekin eta esan zuen horretan erronka bat dugula.

Bengoetxeak Elena Perezi eskerrak eman ondoren, hurrengo hizlaria aurkeztu zuen, LKS Next Legaleko zuzendaria, Martin Rekalde.

Honek, batez ere, kooperatiben esperientziak euren estatutuak lege berriri egokitzean kontatu zituen, LKS Next kooperatiba asko aholkatu baititu arlo honetan. Lehenik eta behin, Martinek, legearen errepaso bat egin zuen, honen ezaugarri nabarmenenak aipatzen: profesionalizazioa, erabaki garrantzitsuen arintzea, lanaren malgutzea, etab. Horiek azalduta, estatutuen adaptazioan bizi izandako esperientziak kontatu zituen. Oro har, kooperatibek erabaki dutela legeak exigitzen dituen aldaketa minimoak egitea nabarmendu zuen. Besteak beste, legeak 36.1. eta 48.2. artikuluetan organoek aukera izango dutela telematikoki biltzeko ezartzen du, hala ere, pandemia dela eta, artikulua hauek txiki geratu dira eta auzi hau gehiago arautzeko beharra nabarmendu zuen. Bestalde, 30. artikulua ematen du aukera Kontseilu Errektoreak, behin estatutuen bidez ezarrita, bazkide



bat kaleratzeko asanbladari galdetu behar izan gabe, honetan kooperatiba gehienak, asanbladan mantendu dutela honelako potestatea azaldu du; azkenik, lege berriak 103. artikuluan ezeztatzen du bazkide berrien onarpen automatikoa, behin urtebete lan egin eta gero eta kontratu mugagabea izanda. Puntu honetan kooperatiba gehienek onetsi dute artikulua, halaber, euren estatutuetatik kendu dituzte onarpen automatikoa eskaintzen zituzten artikulua. Ondorio gisa hurrengo puntuak aipatu zituen Martinek: lege berriak erabaki prozesua hobetzen du, erantzukizun mugatuko araubidea argitu egiten du eta autogestioaren printzipioa onesten du. Aldi berean, pandemiak lege berriko artikulua batzuk garatzeko premia erakutsi du.

Martini eskerrak eman eta hurrengo eta azken hizlaria aurkeztu zuen Aitorrek, Santi Merino, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko Le-tradua.

Honen interbentzioa CSCE-EKKGK-arekiko Euskadiko Kooperatiba Le-geak ekartzen zituen berriei buruz izan zen. Lehenengo gauza, CSCE-EKKGK-aren aurrekari juridikoak aipatzea izan zen. Organoa 1982ko legean ager-tzen zela jada nabarmendu zuen, hori 1934ko Kataluniako legean inspiratu zen eta aldi berean, Kataluniakoa 1918ko frantziar legean. CSCE-EKKGK-aren sorrerak, mugimendu kooperatiboaren antolaketa bermatuko zuen organoa eratzea zuela xede esan zuen. Ekarpen garrantzitsuen artean, Fe-derazio Kooperatiboaren sustapena, lege kooperatibo desberdinen gara-penean parte hartzea, eta Nazioarteko Aliantza Kooperatiboko kide izate-a aipatu zituen. Bestalde, erakundearen izaerari buruz 1993ko legearen arabera hitz egin zuen. 1993an CSCE-EKKGK-aren izaera juridikoa argitu, kooperatiben sustapen eta promoziorako organo gorentzat ipini eta osaera, funtzioak eta definizio juridikoak ezarri ziren. Horretaz gain, liki-dazio-prozesuetako azken hartzearen titularra izateko eta gatazkak kon-pontzeko gaitasuna ematen zion legeak. Honen ostean, 2019ko legearen berritasunak erakundearekiko aipatu zituen: kooperatibismoaren arloan egi-ten diren eginkizun publikoetan gehiago parte hartzeko gaitasuna, Foru Aldundietako ordezkariak CSCE-EKKGK-n parte hartzea, eta printzipio kooperatiboen betetzearen gainbegiraleak izatea, besteak beste. Legearen kontua alde batera utzita, 2020ko memoriaren puntu garrantzitsuenak ai-patu zituen, hauen artean, 12 sustapen eta hedapen-programa, 14 arbitraje-espediente eta 51 Kooperatiba-sozietateen likidazio-espedienteak. Amaitzeko, etorkizunera begira zenbait hausnarketa egin zituen, azpimarratzen, batik bat, CSCE-EKKGK-ak kooperatibismoaren eta kooperatibismorako komite estrategikoa bihurtzea dela helburua. Horretarako, giltza diren ele-mentuak zerrendatu zituen: kideen borondatea helmuga horretara heltzeko, gazteak eta iritzi liderrak erakartzea kooperatibismoa eta euskal kooperati-bismoaren ordezkaria izatea nazioarteko mailan. Honekin bere interbentzioa amaitu zuen Santik.

Bengoetxeak eskerrak eman zizkion Santiri eta ikus entzuleei aukera eskaini zien galderak egiteko. Ikus entzuleen artean, Alfredo Ispizuak, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomia alorreko teknikariak, lege berria justifikatzen zuten arrazoiak eman zituen eta nazioarteko zuzenbide kooperatiboaren irakaspenak oso onuragarriak zirela esan zuen, betiere kontuan hartuz batzuk euskal araudira ekartzeko modukoak izan daitezkeela, baina beste batzuk ez. Honen ostean eta ikusita galdera gehiagorik ez zegoela, Aitor Bengoetxeak guztiei eskerrak eman eta Jardunaldia itxi zuen.